

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### IRUÑA OKAKO UDALA

#### **Behin betiko onarpena ematea zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasen zerga ordenantza aldatzeari**

Erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen ordenantza aldatzearen aurka (ALHAO, 110. zk., 2016ko irailaren 30ekoa), behin betiko onartuta geratzen da, eta osorik argitaratzen da ordenantzaren testua, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 70.2. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako:

#### **Zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza**

##### 1. Xedapen orokorrak

###### **1. artikulua**

Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauak xedatzen duenarekin bat etorriz, eranskinean ageri diren zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik tasak ezarri eta eskatzen ditu, ordenantza honen arabera, zeinaren zati baitira.

###### **2. artikulua**

Ordenantza hau udalerrri osoan ezarriko da.

##### II. Zerga gaia

###### **3. artikulua**

Udalak benetan zerbitzua ematea edo jarduera egitea izango da zerga gaia, zerbitzu hori gizabanakoek zuzenean eskatu dutelako, edo gizabanako horiek egin dituzten edo egin ez dituzten jardueren ondorioz zeharka sortua izan delako.

##### III. Subjektu pasiboa

###### **4. artikulua**

1. Subjektu pasiboak edo zergadunak dira Arabako Lurralde Historikoko zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikuluan aipatzen dituen pertsona fisiko zein juridikoak eta erakundeak, baldin eta zerbitzuak edo jarduerak eskatzen badituzte eta haien onuraz edo eraginaz gozatzen badute.

2. Zergadunaren ordezkioak izango dira:

a) Zerbitzu edo jardueren tasetan, onura edo eragina jasotzen duten erabiltzaileen etxebizitza edo lokalen jabeak; haiek, hala badagokio, onuradunei ordainarazi ahal izango dizkiete.

b) Arriskua aseguratzen duten erakundeak edo elkarteak, zerbitzu hauen tasetan: suteen prebentzioa eta itzaltzea; aurri, eraikuntza eta eraisketen prebentzioa, salbamenduak eta, oro har, pertsona eta ondasunak babestea eta zerbitzua mantentzea.

c) Hirigintza baimenen tasetan, hau da, lurrari eta hirigintza antolamenduari buruzko arautegian xedatutakoetan, eraikitzaileak eta obren kontratistak.

**5. artikulua**

Hauek ordaindu beharko dituzte tasak:

- a) Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoek eskatzen badituzte, eskatu dituztenek.
- b) Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoek ez badituzte eskatu baina hauek egindako edo ez egindako zerbaitengatik burutu behar izan badira, egindakoa edo ez egindakoa egotz dakiokenak.

**6. artikulua**

Ordenantza honetatik ateratzen diren zerga zorrak, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ordaindu beharko dituzte.

## IV. Salbuespenak, murrizketak eta hobariak

**7. artikulua**

Salbuespenak eta bestelako zerga onurak aplikatzekoak diren xedapen orokorren arabera emango dira.

## V. Zerga oinarria

**8. artikulua**

Zerbitzua egiten duen unitate bakoitza izango da zerga oinarria, eranskinak dioenaren arabera.

## VI. Kuota

**9. artikulua**

Zerga kuota, eranskinean ezartzen denaren arabera, honakoa izango da: zerga oinarriari horretarako propio ezarritako kopuru bat edo tarifa bat aplikatuz ateratzen dena, edo bi prozedura horiek batera aplikatuz ateratzen dena.

## VII. Sortzapena eta zergaldia

**10. artikulua**

Tasa sortzen da zerbitzua edo jarduera egiten denean.

## VIII. Likidazioa eta diru sarrera

**11. artikulua**

Udalak kontzeptu bakoitzarengatik egin beharreko likidazioa egingo du, eta likidatutako zenbatekoa dirutan ordainduko da, ordainarazpen bakoitzerako eranskinetako tarifetan dauden arauen arabera.

Hala ere, tasak autolikidazioaren bidez ordaintzeko ere eskatu ahalko da.

## IX. Tasen kudeaketa

**12. artikulua**

Ordenantza honek araututako tasen likidazio, bilketa eta ikuskatzearen gaineko guztian, eta zergen arloko arau hausteen kalifikazioari eta zehapenak zehazteari dagokien guztian, Arabako Lurralde Historikoaren zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

## X. Azken xedapena

Ordenantza hau indarrean izango da Iruña Okako Udalak hura behin betiko onartu eta testu osoa ALHAOn argitaratzen denean, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenaren, 65.2 artikuluan ezarritako epea igaro eta gero.

**Ordenantzaren eranskina**

“Zerbitzu publikoak emateagatik eta jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasak”

**I. epigrafea. Kultura jardueren zerbitzua:**

1.1. Musika irakaskuntza: Udalak antolatu eta gizarte zein kultura etxean ematen diren musika ikastaro hauetan parte hartzea: solfeo, akordeoia, gitarra, trikitixa eta panderoa, organoa, saxofoia, tronpeta. Banakako klaseak direnez, ordaindu beharreko kuota jasotzen den zerbitzuaren denboraren arabera izango da.

Musika irakaskuntza

Eskolak (taldeak): 22,90 euro/hiruhileko

Banakako eskolak: 203,06 euro/ikastaro

1.2. Ingeles irakaskuntza: udalak antolatu eta gizarte zein kultura etxean ematen diren ingeles ikastaroetara joateagatik.

Haurrentzako ingelesa:

a) 1 ordu/aste 20,82 euro/hiruhileko

b) 1 ordu eta erdi astean 31,25 euro/hiruhileko

Ingelesa, helduentzat:

2 ordu/aste 272,16 euro/ikastaro

1.3. Euskara eskolak 110,88 euro/ikastaro

**II. epigrafea. Kirol jardueren zerbitzua:**

Udalak antolatutako ikastaroetara joatea.

2.1. Hirugarren adinekoentzako gimnastika 9,61 euro/hiruhileko

2.2. Mantentze gimnastika eta aquagym 29,16 euro/hiruhileko

2.3. Pilates: 20,82 euro/hiruhileko

2.4. Step-Gap 22,90 euro/hiruhileko

2.5. Tai-Chi 28,10 euro/hiruhileko

2.6. Gorpil gaineko irristaketa, haurrentzat 17,69 euro/hiruhileko

2.7. Gorpil gaineko irristaketa, helduentzat 22,90 euro/hiruhileko

2.8. Txirindularitza eskola Doan.

**III. epigrafea. Ludoteka zerbitzua**

3.1. Ludoteka

a) 1 saio 15,00 euro/hiruhileko

b) 2 saio 20,00 euro/hiruhileko

3.2. Ludokluba 20,82 euro/hiruhileko

3.3. Gazte kluba Doan

**IV. epigrafea. Hainbat jarduera**

4.1. Eskulan lantegia 34,37 euro/hiruhileko

4.2. Kakorraz eta puntu lantegia 15,12 euro/hiruhileko

- 4.3. Antzerki lantegia 25,20 euro/hiruhileko
- 4.4. Marrazketa eta pintura 47,55 euro/hiruhileko
- 4.5. Euskal dantzak: Dohan
- 4.6. Dantza latinoak: 40,40 euro/hiruhileko
- 4.7. Sevillanak  
(16 urtetik gora): 40,40 euro/hiruhileko  
b) (5 urtetik gora): 30,24 euro/hiruhileko
- 4.8. Zumba: 30,24 euro/hiruhileko
- 4.9. Zumba, haurrentzat: 30,24 euro/hiruhileko
- 4.10. Abesbatza: 26,02 euro/hiruhileko  
Abesbatza eskola, haurrentzat: 26,02 euro/hiruhileko
- 4.11. Helduen hezkuntza Doan
- 4.12. Gaitasun digitalen lantegia: 50 euro/ikastaro
- Iruña Okako udalerrian errolatuta ez dauden kuotek % 50eko gehikuntza izango dute.

V. epigrafea. Igerileku publikoen zerbitzua

Xedea. Tasa honen zerga gaia izango da udal igerilekuetako instalazioak erabiltzea, eta horrek zerga ordaintzeko beharra eragingo du.

Udako igerilekuak

	ERROLDATUA		ERROLDATU GABEA	
	HELDUAK	HAURRAK	HELDUAK	HAURRAK
Denboraldiko abonamendua	60,00 euro	40,00 euro	70,00 euro	50,00 euro
Hileko abonamendua	36,00 euro	26,00 euro	42,00 euro	32,00 euro
Jaieguneko sarrera	5,00 euro	3,00 euro	6,00 euro	4,00 euro
Laneguneko sarrera	3,50 euro	2,00 euro	4,50 euro	3,00 euro

Langraiz Oka, 2016ko azaroaren 28a

*Alkate-lehendakaria*  
**JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA**